

AP-2.HE / 1. eredua

- 1.- *Askotan galdetzen diot zergatik naizen hain beldurtia.*
- a) neure buruarengan
 - b) neure buruari
 - c) neure buruagatik
 - d) neure burutik
- 2.- Eman segida hitz zerrenda honi: *alkatea, zinegotzia, batzordea,*
- a) epaitegia.
 - b) abesbatza.
 - c) udalbatza.
 - d) biltegia.
- 3.- *Medikua etorri zitzaigunerako*
- a) ustekabeen zen.
 - b) ez ginen une batez ere geldituko.
 - c) odol azterketa egiten genuen.
 - d) beranduegi zen.
- 4.- *Eraman Andoniri nominak, haien zain dago eta!*
- a) iezaiozue
 - b) itzazu
 - c)iezazkiozu
 - d) itzazue
- 5.- Norbaitek zure bulegoko atea jo du eta honela galdetu du: *Pasa liteke?*
Zer erantzungo zenioke?
- a) Eutsi horri!
 - b) Primeran, sartzeko!
 - c) Aurrera, beldurrik gabe!
 - d) Mila esker!
- 6.- *Hirira joan ez dugu elkar ikusi.*
- a) dela
 - b) denez geroztik
 - c) den
 - d) den orduko

- 7.- *Ez dakit zer egin diru gehiago*
- a) oroitzeko.
 - b) aurrezteko.
 - c) apaintzeko.
 - d) atzeratzeko.
- 8.- *Bileraren ostean bazkaldu genuen eta arratsaldea ere halaxe igaro genuen.*
- a) elkarri
 - b) elkar
 - c) elkarrentzat
 - d) elkarrekin
- 9.- *Gaur ez naiz ikastarora joango. Zer erantzungo zenioke?*
- a) Aurrera, zurea da eta!
 - b) Hor konpon!
 - c) Zertan esanik ez!
 - d) Ezetz ba!
- 10.- *Eskubaloian bi taldeak berdinduta gelditu dira. Zein da PAREKOA?*
- a) Partida hogeita bina bukatu dute.
 - b) Partida hogeita binaka bukatu dute.
 - c) Partida hogeita biko bukatu dute.
 - d) Partida hogeita binan bukatu dute.
- 11.- *Karpeta berean beste dokumentu bat zabal*
- a) zinatekete.
 - b) daitezke.
 - c) zenukete.
 - d) dezakezue.
- 12.- *Gure aitona da gaztetako istorioak kontatzen dizkigunean.*
- a) txapelduna
 - b) jokalaria
 - c) barregarria
 - d) ibiltaria

13.- Zein dago ONDO?

- a) Zer esan dizudala? Ba, ea nirekin etorri nahi duzun zinemara.
- b) Zer esan dizudan? Ba, ea nirekin etorri nahi duzun zinemara.
- c) Zer esan dizudala? Ba, ea nirekin etorri nahi duzu zinemara.
- d) Zer esan dizudan? Ba, ea nirekin etorri nahi duzu zinemara.

14.- *Berak ondo egin bazuen, nik askoz ere hobeto. Zein da esaldi horren PAREKOA?*

- a) Berak eta neuk egin genuen ondoen.
- b) Batak bestearekin egin genuen, nahiz eta nik askoz hobeto egin.
- c) Biok egin genuen ondo, baina berak nik baino okerrago.
- d) Nahiz eta onena izan, berak nik bezala egin zuen.

15.- *Posta garaiz, ez kexarik adieraziko.*

- a) helduko bazitzaigun/ genituzke
- b) heldu balitzaigu/genukeen
- c) helduko balitzaigu/genukeen
- d) heldu izan balitzaigu/genituzke

16.- *Euri-zaparraden ondorioz izan dira Levante aldean, eta herri asko argirik gabe geratu da.*

- a) irabaziak
- b) uholdeak
- c) aterkiak
- d) zorrak

17.- *Ahaleginak egin baditugu ere, ez dugu ezer lortu. Aukera ezazu PAREKOA.*

- a) Ahaleginak egin ditugunerako ez dugu ezer lortu.
- b) Ahaleginak egin ditugunez gero, ez dugu ezer lortu.
- c) Ez dugu ezer lortu ahaleginak egin ditugun arren.
- d) Ez dugu ezer lortu ahaleginak egin ditugunetik.

18.- *Neka-neka eginda amaitu genuen! Zein da esaldi horren PAREKOA?*

- a) Atsedena hartu beharrean amaitu genuen.
- b) Aspertuta amaitu genuen.
- c) Oso goibel amaitu genuen.
- d) Guztiz bustita amaitu genuen.

19.- *Obratan hasi baino lehen bulegoko atera zituzten.*

- a) bazterrak
- b) ikusleak
- c) altzariak
- d) itzalak

20.- Zein dago ONDO?

- a) Mikelek badakizki bertsoak botatzen.
- b) Gai guztiak ikasten lagunduko dizkizut.
- c) Gauzak ondo egiten irakatsi didazu.
- d) Marrazkiak egiten jarraitzen dituzu.

21.- *Bigarren solairuko auzokideak igogailuz igotzen dira beti; lehenengokoak, ordea, oinez igotzen ohitu dira. Zein da esaldi horren PAREKOA?*

- a) Bigarren solairukoak ez dira lehenengokoak bezala igotzen.
- b) Lehenengo solairukoak gutxitan igotzen dira ohituragatik.
- c) Lehenengo solairukoak oinez igotzen direnez, bigarrenekoak ere ohitu dira.
- d) Lehenengokoez gain, bigarrenekoak ere igogailuz igotzen dira.

22.- *Egia esateko, lantokiko ez dut inolako konfiantzarik.*

- a) zenbaitengana
- b) zenbaitengandik
- c) zenbaitengan
- d) zenbaitenganako

23.- *Gazteek ez diote euren buruari baino begiratzen. Oso omen dira.*

- a) berritsuak
- b) buruargiak
- c) burutsuak
- d) berekoiak

24.- *Nire ustez,*

- a) komeni da zabortegiak kontrolpean egon.
- b) hondakin kantitatea ez dela arazo bakarra pentsatzen dut.
- c) hondakinak bereizi egin behar direla.
- d) asko dira kontrolik gabeko zabortegiak.

25.- *Gaurko egunkarian hainbat gai berdinak jorratzen dituzte.*

- a) iritzi-artikuluentzat
- b) iritzi-artikuluk
- c) iritzi-artikuluetan
- d) iritzi-artikuluek

26.- *Jaialdi honetan jende gehiago balego, Markelek ez gu hain erraz ikusiko.*

- a) gaitezke
- b) gintuzke
- c) litzaiguke
- d) liguke

27.- *Ez dakit zenbatek zuten taldea, baina asko ziren.*

- a) itzultzen
- b) osatzen
- c) luzatzen
- d) jasotzen

28.- *Poltsa beltza ez dut aurkitu.*

- a) bat ere
- b) besterik
- c) erdi
- d) gabe

29.- *Bere kabuz hasi da berriro frantsesa ikasten. Zer adierazten du azpimarratutakoak?*

- a) Beldurrez.
- b) Inoren laguntzarik gabe.
- c) Ondo prestatuta.
- d) Pozik.

30.- *Etxean bazkaltzen dugunez gero, bazkaria bezperan prestatzen dut. Aukera ezazu PAREKOA.*

- a) Etxean bazkaltzen badut ere, bazkaria bezperan prestatzen dut.
- b) Bazkaria bezperan prestatzeko etxean bazkaltzen dugu.
- c) Bazkaria bezperan prestatzen dut, etxean bazkaltzen dugu eta.
- d) Etxean bazkaltzen dugu, bazkaria bezperan prestatu arren.

31.- *Nire hobetu behar dudala esan dit irakasleak.*

- a) idazlaria
- b) idazkera
- c) idazkaria
- d) idazkaritza

32.- *Gurasoak oporretan joan dira, eta seme-alaba betebehar bat eman diote.*

- a) berberari
- b) berdinari
- c) bakoitzari
- d) bereari

33.- *Zerez ematen diote boxeolariek elkarri?*

- a) Orpoaz.
- b) Kokotsaz.
- c) Ukabilaz.
- d) Orkatilaz.

34.- *Esaten dutenez, sorginak deabruak hartutako emakumeak ziren. Aukera ezazu PAREKOA.*

- a) Sorginak deabruak zein hartutako emakumeak ziren.
- b) Sorginak deabruak hartutako emakumeak ote ziren.
- c) Sorginak deabruak hartutako emakumeak omen ziren.
- d) Sorginak deabruak hartutako emakumeak ahal ziren.

35.- *Oso ondo lana bihar bertan amaitzea.*

- a) dezakegu
- b) liguke
- c) legoke
- d) ditzakegu

36.- *Gaixotasun askotan gaixoak adina zergati daudela dute ikerlariek.*

- a) laztandu
- b) txalotu
- c) frogatu
- d) bihurtu

37.- *Ikasketak, lanean hastea erabaki dut.*

- a) jarraitu ez ezik
- b) jarraitu ahalean
- c) jarraitu bezala
- d) jarraitu beharrean

38.- *Nahi baduzu, Unairi bisita egitera joan*

- a) ginateke
- b) gintezke
- c) genezake
- d) genitzake

39.- Zein dago ONDO?

- a) Zenbat eta urduriago egon, orduan eta gutxiago egiten dut.
- b) Hainbat eta urduriago egon, gero eta gutxiago egiten dut.
- c) Gero eta urduriago egon, orduan eta gutxiago egiten dut.
- d) Orduan eta urduriago egon, hainbat eta gutxiago egiten dut.

40.- *Ziri galanta sartu digu proba egin aurretik. Zer esan nahi du azpimarratutakoak?*

- a) Beldurra sartu digula.
- b) Damutu egin zaigula.
- c) Engainatu egin gaituela.
- d) Animoak eman dizkigula.

41.- *ez da horrelako eguraldi aldaketarik ikusi.*

- a) Historiaren zehar
- b) Historiari zehar
- c) Historian zehar
- d) Historiaz zehar

42.- *Bazkalorduan laneko gorabeherez beti.*

- a) dirau
- b) dihardu
- c) deritzo
- d) dagokio

43.- *Lehenago, hogei urterekin ezkontzen ziren eta gaur egun, berriz, hogeita hamarrekin. Zein da PAREKOA?*

- a) Lehenago eta gaur eguneko gazteen artean aldea dago ezkontzeko adinean.
- b) Lehenago gaur egun adina urte izaten zuten ezkontzen zirenean.
- c) Oraingo gazteak lehenagokoak baino gazteago ezkontzen dira.
- d) Lehenago gazteak behin ezkontzen ziren, hogei urterekin; oraingoak hogeita hamarrekin berriro ezkontzen dira.

44.- Zein hasiera emango zenioke eskutitzari?

- a) Udaltzainburua jaun/andrea:
- b) Udaltzainburua jaun/andre hori:
- c) Jaun/andre udaltzainburua:
- d) Udaltzainburu jaun/andrea:

45.- *Auzokoek etxetik alde egin dutela uste dugu. Zein da esaldi horren PAREKOA?*

- a) Auzokoak etxetik alde egiterakoan dabilta.
- b) Auzokoek etxetik alde egin dutelakoan gaude.
- c) Auzokoak etxetik alde egindakoan daude.
- d) Auzokoek etxetik alde egin dutenik gaude.

AP-2.HE / 1. eredua

ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1.	B	2.	C	3.	D	4.	C	5.	C
6.	B	7.	B	8.	D	9.	B	10.	A
11.	D	12.	C	13.	B	14.	C	15.	B
16.	B	17.	C	18.	A	19.	C	20.	C
21.	A	22.	C	23.	D	24.	D	25.	B
26.	B	27.	B	28.	B	29.	B	30.	C
31.	B	32.	C	33.	C	34.	C	35.	C
36.	C	37.	D	38.	B	39.	A	40.	C
41.	C	42.	B	43.	A	44.	D	45.	B